

CALCUTA ONDOAN



VISHWAS ETA CSC VIHAAN: GIB/HIESARI BURUZKO
SENTSIBILIZAZIO EGUNA

Calcuta Ondoan-ek 20 urte baino gehiago darama lanean GIBa aurreikusteko eta tratatzeko proiektuetan, tokiko bazkide den Vishwasekin elkarlanean. Lerro hauek baliatu nahi ditugu Vishwaseko talde osoaren eguneroko lana aitortzeko; Izan ere, beren konpromiso eta gertutasunak benetako eragina dute laguntzen dituzten pertsonen bizitzan. Pertsona asko egoera oso zailean eta emozionalki kaltetuta iritsi ziren proiektura, estigma handiko gaixotasun bat diagnostikatu baitzieten. Hala ere, proiektuari esker, GIB birusa neutralizatzeko beharrezko sendagaiak jasotzeaz gain, itxaropena eta bizitzeko gogoia berreskuratzen dute, onura horiek beren senideengana ere iristen direlarik.

Proiektuaren helburua da zuzenean laguntzea GIB+ duten pertsonen eta haien familiei, eta aldi berean gizartea sentsibilizatzea estigma hori desagerrarazteko eta infekzio berriak saihesteko.

Hiesaren Munduko Eguna dela eta, abenduaren 1ean, Vishwasek eta CSC Vihaanek hainbat jarduera antolatu zituzten komunitate eta hezkuntza-eremuan GIB/HIESaren inguruko kontzientzia sustatzeko, prebentzioa bultzatzeko eta estigmaren aurkako borrokan laguntzeko. Guztira, 14 programa egin ziren, komunitatean zein hezkuntza-eremuan.

Jarduera horietako sei komunitate-eremuan burutu ziren, eta 800 pertsonatara iritsi ziren. Informazioa auzo marjinaletan bozgorailuen bidez transmititu zen, baita osasun-informaziorako sarbidea gutxien duten pertsonengana ere. Ekintza horiek gertukoak eta parte-hartzaileak izan ziren, zalantzak argitzen, mitoak apurtzen, proba goiztiarrak sustatzen eta praktika seguruak indartzen lagundu zuten.

Horrez gain, hezkuntza-eremuan zazpi jarduera antolatu ziren: bat unibertsitatean eta sei eskola publikoetan, 1.000 ikasle baino gehiagorentzat. Hiru hitzaldi eman ziren, transmisio-bideak, prebentzioa eta estigmaren aurkako borroka ardatz hartuta, eta horiei lau kale antzezlan gehitu zitzaizkien, gaiaren ulermen dinamikoagoa eta hurbilagoa sustatzeko. Mezua indartzeko, informazio-materialak banatu ziren, ikasleek etxera eramateko eta beren ingurukoekin partekatzeko.

Azkenik, hiri mailan eragin handia izan zuen ekintza bat gehitu zen: 2025eko abenduaren 1ean, HIESaren Prebentzio eta Kontrolerako Barruti Unitateak (DAPCU) Indoren martxa sentsibilizatzaile jendetsu bat antolatu zuen, eta 1.500 pertsona inguruk parte hartu zuten.



39. zk
abendua
2025

Martxa Rajwada historikotik hasi eta Gandhi Hall-en amaitu zen, eta hiri osoaren arreta erakartzea lortu zuen. Aurten landutako leloa, "Hustura gainditzea, HIESari erantzuna eraldatzea. Ikasleek parte hartu zuten oso modu aktiboan, pankartak eramanez eta prebentzioa, diagnostiko-probak egitea eta tratamendurako sarbidea sustatzen zuten mezuak oihukatuz.

Vishwasen eta CSC Vihaanen papera nabarmena izan zuen: pankartak prestatu, esloganak sortu eta martxaren amaieran nukkad natak (antzerki kalejira) aurkeztu zuten. Antzezlanak mitoak apurtzea, enpatia sustatzea eta jokabide seguruak bultzatzea izan zuen helburu. Ekitaldian parte hartu zuten autoritateek, hala nola Osasun eta Medikuntza arloko Burua, Dr. Madhav Hasani, Tuberkulosirako Barruti-Ofiziala, Dr. Shailendra Jain, Disha Programako arduraduna, Alok Ranjan Maurya, eta beste hainbat agintari, ekitaldiaren garrantzia handituz.

Ekintza guzti horien —komunitate-jardueretatik hasi eta instituzionalak eta hiriko martxa handira— ondorioz, sentsibilizazioa indartu eta gizarte informatuago, kontzienteago eta estigma gabeko bat lortzea posible izan zen, GIB/HIESaren inguruan.



LA MORERAREN BISITA, ARGENTINATIK GIPUZKOARA

Otsailaren 16tik 20ra, La Morera Fundazioko bi kide Gipuzkoan izango dira, beren lanaren berri emateko. Batetik, fundazioko sortzaileetako bat Matias Jaimovich, etorriko da, eta bestetik, Jessica González, "La Jeka" izenez ezaguna, emakume aktibista eta fundazioko erabiltzaile ohia.

La Morera Fundazioa Argentinako Kordoba hirian kokatutako erakunde bat da, eta ikuspegi kultural eta komunitario batetik ahultasun-egoeran dauden emakumeei laguntzen die. Bere lanaren bidez, autonomia pertsonala, gizartean parte-hartzea eta maila pertsonal zein kolektiboko eraldaketa sustatzen ditu. Fundazioaren jarduna zaintzan eta laguntza integrean oinarritzen da. Artea eta kultura

nahiz komunitate-lana aldaketa soziala bultzatzeko tresna direla kontsideratzen dute.

Calcuta Ondoan La Morera Fundazioarekin elkarlanean aritzen da urtebetez, lankidetzaren eta elkartruke ikaskuntzaren lotura hori indartuz. Gainera, La Jeka feminismo-kooperatibismoaren erreferentzia da Kordoban. Izan ere, Mujeres Activando kooperatibaren arduraduna da. Era berean, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako aktibismoagatik eta komunitate ikuspegitik sustatzen dituen ekimenengatik ere ezaguna da.

KONTSULTATU AGENDA ETA EZAGUTU PROGRAMATUTAKO JARDUERAK

ELKARTASUN ASTEA LEGORRETAN: "BIZITZAK POSITIBOAN" ZINEFORUMA, UGARO IKASTETXEKO TAILERRA ETA AZOKA



Calcuta Ondoan-ek Legorretan hainbat jarduera bultzatu zituen GIB/HIESari eta Giza Eskubideei buruzko sentsibilizazioa sustatzeko. Abenduaren gan, zineforuma egin zen "Vidas en positivo". Dokumental honek Indian GIBarekin bizi diren pertsonen errealitatea gerturatu zuen eta, ondoren, publikoarekin elkarriketa parte-hartzailea burutu zen.

Astea Ugaro ikastetxean jarraitu zen, 5. eta 6. mailako ikasleei zuzendutako tailer batekin, non Giza Eskubideak eta Indian haurren egoera lantzen ziren. Jarduerak igandean amaitu ziren frontoian egindako azoka solidario batekin, bertan 100 pertsona baino gehiago elkartu ziren eta Calcuta Ondoan-en lana laguntzeko dirua biltzea ahalbideratu zen.

2025a, dakizuen bezala, ospakizun eta aitortzen urtea izan da. Urtean zehar hainbat jarduera berezi egin ditugu Gipuzkoako hainbat herritako hondartzetan, Giza Eskubideen, Emakumeen eta Ingurumenaren Munduko Eguneekin bat eginez. Era berean, Donostian mural eder bat egin dugu, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Agustín Ugarte Saridun Solidarioa eman zigun.

2025a, gainera, urte berezia izan da gure eragina Indiaren haratago zabaltzen hasi baikinen, proiektu berriak abiaraziz Argentinan, Nepalen eta Bhutanen.

2024aren amaieran, Cordobara (Argentina) bisita egin genuen, auzo marginal batzuetan, non La Morera Fundazioarekin eta Mujeres Activando erakundearekin elkarlanean aritu ginen. Hain juxtu, haiek etorriko dira otsailean Gipuzkoara.

2025eko udan, Nepal eta Bhutan bisitatu genituen, eta hitzarmenak itxi genituen Nepaleko landa-eremuetan lan bikaina egiten ari diren

erakunde batzuekin. Hain zuzen, emakume pobreekin, askok desgaitasunak dituztenak eta genero-indarkeriaren biktimekin topatu ginen. Kopila Nepal eta Radha Paudel Fundazioarekin elkarlanean arituko gara.

Bhutanen, Lhak-Sam-ekin lankidetzahitzarmenak itxi ditugu GIB/HIESaren prebentzio eta tratamenduan lan egiteko, baita Bhutaneko GNH Zentroarekin (Gross National Happiness, zoriontasun nazional gordina) ere. Erakunde horrek bizi-kalitatea neurtzen du modu psikologikoagoan, BPGaren aldean.

Beraz, 2025a urte berezia izan da, non ilusioz aurre egin diogun erronka berriei, beti aldean izanik egoera ahulean dauden pertsonak.

Eskerrik asko bihotzez urte hauetan guztietan babestu gaituzuen guztioi. Ekarpen bakoitzak balio du, eta gurekin eskuz esku lanean ari garen milaka pertsonen aitortza eta esker ona helarazi nahi dizkizuegu.



DOHAITZA ERRAZA BIZUM-EN BITARTEZ: KODEA 00558


Orain, zure mugikorretik ere dohaintza egiteko aukera duzu, Bizum aplikazioari esker, berehala eta banku-komisio gabe.

Zure banku-aplikaziotik, Bizum aktibatuta baduzu, hautatu "Dohaintza" aukera, aukeratu Calcuta Ondoan edo sartu eskuz kodea 00558. Adierazi emango duzun kopurua eta bidali.

Berehala jasoko dugu zure dohaintza eta zure NAN identifikatzailea. Gogorarazten dizugu, halaber, gure erakundea Gizarterako Onuragarria aitortuta izan zela, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Erakunde Lehentasuna aitortu digula. Horri esker, zure hurrengo errentaren deklarazioan gehienez %30 deskontu izan dezakezu.

Dagokion deskontua jasotzea nahi baduzu, ez ahaztu info@calcutaondoan.org helbidera posta elektronikoko bat bidaltzea, honako datuekin:

- IZENA ETA ABIZENAK
- NAN / NIF / NIE
- Posta elektronikoa
- Helbidea, posta kodea eta herria
- Mugikor-zenbakia, dohaintza egin duzun gailutik
- Emandako kopurua
- Dohaintzaren data



AGENDA

ASTEARTE OTSAILA	17	Rap feminista tailerra - Emakumeen Etxea Donostia	18:00-20:00
ASTEAZKEN OTSAILA	18	Zarauzko Gizarteratzeko agenteekin topaketa Rap feminista tailerra - Emakumeen Etxea Zarautz	10:00-12:00 17:00-19:00
OSTEGUN OTSAILA	19	Rap feminista tailerra - Emakumeen Etxea Hernani	17:30-19:30
OSTIRAL OTSAILA	20	Elkartrukea La Morera & Calcuta Ondoan	*Ordua zehazteke

NORTZUK GARA?

Calcuta Ondoan GGKE Gipuzkoan 1999an sortutako elkarte donostiarra da. Laguntza humanitarioko eta garapeneko proiektuak babesten ditugu Indian, pertsona eta taldeak osotasunean sustatuz, betiere haien identitatea eta herriaren izaera errespetatuz, erlijioa aintzat hartuz eta giza eskubideak eta genero-berdintasuna sustatuz.

Gure inguruan, kontzientzia kritiko eta konprometitua sustatzen dugu, bereziki Hegoaldeko herrialdeetan bazterketa, injustizia eta pobretze egoeren kausak, ondorioak eta erantzukizun partekatuak ulertarazteko. Era berean, ikuspegi positibo batetik, elkartasuna, aniztasun kulturalaren aberastasuna eta desberdina denarekiko errespetua sustatzen ditugu.

Elkartea Eusko Jaurlaritzaren Elkarteen Erregistroan AS/G8501/2001 zenbakiarekin dago inskribatuta, N.I.F. G-20696175. Euskadiko ONGD Koordinakunde eta Pobreza Cero plataformaren kidea da, eta 2009an Gizarte Onuragarria izendatu zuten (36/2009 Dekretua).

Calcuta Ondoanen BOLUNTARIOTZA hainbat adinetako pertsona aktiboz eta konprometituz osatuta dago, eta haien laguntzarik gabe gure lana ez litzateke posible izango.

Anima zaitez eta parte hartu!!

HARREMANA

 Calcuta Ondoan ONGD

 calcutaondoan

 Calcuta Ondoan ONGD

 +34 943 431 849

 info@calcutaondoan.org

 Maestro Santesteban Kalea, 3 - 2ºB
20011 Donostia Gipuzkoa



Lagundu!
calcutaondoan.org

Zure ekarpenari esker, abantailez fiskalak lor ditzakezu, gure elkartearen Gizarte Onuragarria dela-eta. Horri esker, zure kuotetatik edo dohaintzetatik gehienez %30 deskontatu ahal izango duzu Zergen Itzulketan (IRPF).